

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Ahari talka.
Zein?
Noizpop.
Iraupena: 51' 53".
10,95 euro.

Beteranotasunak ematen duen rockaren irakurketa zabala

BITXIA DA, gutxienez, diskoetxe honen izena asmatu zuen musika taldearen "semeak" etxe honekin diskoa argitaratu izana; norbaitek esango luke zirkuluaren itxiera izango dela. Baina zirkuluak ez da itxi; honako hau Zein?-en hirugarren lana da eta euren aurrekari Ama Say ere itzuli dira. Ezinbestekoa da bi talde horien arteko konparaketa, baina Zein?-ek rocka zentzu zabalagoan ulertzen du eta euskararen mese-

dean ingelesa alboratuta dauka. Are gehiago, pop-rockaren aldeko apustua egiten du, nahiz eta kaxotx artean esan behar den: melodiak jaun eta jabe diren arren, gitarrak indartsuak dira, psikodelia presente dago, baita Eskandinabiako hard-rockaren urgertzia eta giro askoz ilunagoak ere. Hori gutxi balitz, doinu "fronterizoak" ere badaude diskoan. Orain lozorroan dago, baina iratzartuko da.

Zein?

«Bizitzari azken tanta ateratzen saiatzen gara musikaren bitartez»

Zein da arrazoia musika egiten jarraitzeko?

Ez dakigu. Interes bera duten beste hirurekin lan egitea, gauza antzekoek zirrara sortzea, gordeta dituzun hainbat gauza ateratzea, geuk nahi duguna nahi dugunean egitea... bizitzari azken tanta atera diezaiokegu horrela musikarekin.

Ama Sayrekin alderatuta, Zein?-ekin Karlosen ingeles klaseak galdu eta intentsitatea epeldu zenuten?

Karlos Barakaldoko post punka zen —ezker aldeak nortasuna finkatzen du—. Ezagutu dudun tipo interesgarrienetarikoa. Eta izan liteke Zein? beste ildo batetik joatea, ez epelagoa baina nahiko ezberdina.

Zein?-ek rockaren alde egiten du zentzu oso zabalean, eta pop-a konplexu gabe aldarrikatzen du, besteak beste?

Zeharo. Azken finen rockarekin nahi

duzuna egin dezakezu, ezta? Zure barneak ateratzeko erarik primitiboena da musika kontuan.

Gaur egun diskoak ateratzea, zer da, "sarerik ez ikustea"?

Dudarik gabe. Sarerik ez, baina oso gustura egiten duzun zer edo zer. Masokak gara: jartzen dugu gure ilusio guztia, ez daukagun denbora, diru pila bat...

Letrek biziraupenezkoak dirudite: "ihes, askatu, balak, arnasa hartu, beldurra, borrokatu, ito, leku ezkutu"...

"Helduak" garenean gauzarik ton-toena egiten dugu: haurtzaroko ametsak albo batean uzten ditugu, lan baten truke. Nahiak beheko solairura bultzatzen ditugu eta frustrazio ikaragarriak datoz. Horri aurre egin behar diogu zoriontasuna neurri handi

batean norberaren esku dagoelako zer nahi duen argi izanez gero.

Hitzak nahiko zinematografikoak iruditzen zaizkit.

Dudarik gabe. Oso zinemazaleak gara. Gero eta gehiago gainera. Irudi gutxirekin pertsonaia, harremanak edo egoera bat deskribatzeko aukera ematen dizu zinemak.

Bada rock-and-rollik espazioan eta Innsbrucken? Eta han bakea aurkituko zenukete?

Touché. Bai, noski; rocka denbora hauetako balada da. ■

